



## KANPOTAR BATEN IBILALDIAK ORERETA/ERRETERIA ALDEAN

Beste jende askoren antzera Gipuzkoako herri ttipi batetik Errenteriara (Oreretara) etorri beharrean aurkitu nintzen 50-etako hamarkadaren erdialdean, gizarteak eskatzen zuen ikasketa-maila iristea behar bait nuen. Herri ttipi hartan nuen askatasunari eta nire buruaren jabe izateari uko egiten hasi behar izan nuen, Errenteria edo Oreretan sartu bezain azkar, egoera horrek dakartzan trauma guztiekin. Herri industrialdu batek duen disziplina, lotura, ordutegia eta fabriketako tutua

eta kea gorrotatu egiten nituen, baina, hala ere, egon eta bizi egin behar. Uda amaitu eta gero etortzen nintzenean nire baitako nahigabeak neurtu ezinekoak izaten ziren.

Behin Oreretan, orain luze ez dela bota den fabrika zaharrean zegoen praileen ikastetxean sartu ninduten. Hura zen disziplina eta aldaketa! Goizean jaiki eta lehenbiziko lana meza entzutea izaten zen, 9-ak aldean; gero, han, kolegioko ateurrean egoten ziren prailea pareei «buenos dias hermano» esan

eta, han sartzen ginek 12,30-ak arte: «uno por uno es uno; uno por dos es dos;... cinco por cuatro veinte; cinco por cinco veinticinco...». Hola ikasten genuen aritmetika; errekreoan: futbola geure dibertsio nagusia eta bakarretakoa; eguraldia ona egiten zuenean mojen ondoko zelaiara eta txarra zegoenean barruko patio batean. Arratsaldez beste hainbeste; 2,30-etan klaseak hasten ziren 6,30-ak arte, erdian geldiuone batekin. Hola asteko egun guztietan osteguna ez ezik. Eguraldia eta eguraldi ona bazen Zentolengo futbol-zelaiara joaten ginen, eta beste egun guztietako ilunaurretan kalean jokatzeko genuen futboleak, bai Alfonso kalean, bai Ondartxo aldean, aguazilak uzten zigun bitartean, galerazia egoten bait zen kaleetan jolastea. Beraz, aguazila ikusi bezain pronto baloia hartu eta laisterka ihesi.

Garai horretan genituen harreman guztiak, etxeokoa kenduz gero, gaztelaniaz izaten ziren, nahiz nire betiko hizkuntza euskara izan. Ez nuen oso ondo menderatzen Cervantes-en hizkuntza, eta beraz, nire gain egitea nahi ez banuen, isil demontre egon behar. Niri gustatzen zitzaidanarekin hitz egitea eta mutu egon behar! Gogoratzen naiz behin edo beste hasi nintzala gehiegi mintzatzen eta nola trufatzen zen «hermanoa», nola jotzen zidan adarra beste lagunaren aurrean. Ez naiz ahaztuko.

Baina gauza bat daukat aitortu beharra, alegia, nire eskolakideak ez zirela niretzat inoiz trufatu. Ez dakit zergatik, baina garai hartan gaztelaniaz ondo ez zekienari eta «z»-tak gogorak erabiltzen zituenari «pello» deitzen zioten eta hori ez zidaten inoiz ezarri. Hori esplikatzen ez dut arrazoirik aurkitzen, hain mutu egoten nintzela ere ez bait litzateke oso egia izan.

Garai hartan Erreterian/Oreteran ba zeuden, praileen ikastetxetik aparte, beste zenbait eskola, baina geure artean ez zen lotura handirik egoten. Bestalde, eskola batera edo bestera joateak maila sozial edo kategori berezi bat ematen zuelakoan nago. Donostiako ikastetxera joaten zirenak izaten ziren «señorito»-enak, hauek oso harreman gutti zutelarik herrikoekin. Gero, nolabait esateko, praileetan ibiltzen ginenok geunden eta atzetik eskola publikoetakoak. Azken hauetan ibiltzen zirenak guk baino guttiago zekitelakotan egoten ginen. Orduan ere, bazirudien, pribatasunak kategorio gehiago ematen zuela, nahiz horrek inongo frogarik ez izan.

Oso pedagogikoak izaten ziren Igandeetako On Robertoren Meza Nagusi amaigabeak. Hamarretako meza horretara nahitanahez joan behar izaten genuen, eta meza aurretik praileetan bertan bildu ondoren gero denok hilaretan, kurtsoa joaten ginen, prailea artzaitzaz genuelarik. Eliza Nagusian sartzen ginen

eta isilik egon behar: zaila Berastegitik datorren batentzat!

Ikasgaiak, klasean ikasten genituenean, kantari irakurtzen genituen; gauza bera aritmetikako taulekin; ibaiekin; mendiekin; hiriburuekin; e.a. Konpasa berriz, praileak erregla ttipi batekin eramaten zuen, mahaiari joaz.

Gero, zigorketak zeuden. Kalse garaian hitz egiten edo ondoko lagunari jotzen edo tinteroak botatzen edo eskolako disziplinatik at zegoen zerbait egiten harrapatuz gero, zigortuak izaten ginen. Kasu batzutan zigorketaren orde zelaurrendoko bat izaten zen edo erreglazo bat buruan edo eskuetan.

Zigorketa tipiko bat denon aurrean belauniko edo zutik edukitzea izaten zen. Beste zigorketa moeta bat esaldiak kopiatzea izaten zen: «no hablaré durante el tiempo de clase con mi compañero» edo antzekoak. Esaldi hauek 100 edo 200 bider egin behar izaten genituen. Behin, gogoratzen naiz nola «hermano Alberto»-k holako esaldi bat 50 aldiz egitea bidali zigun, baina kaligrafiaz. Egin eta erakutsi; beste hainbeste egitea bidali. Hola bi edo bi ordu t'erdia. Azkenik, aspertuta geunden eta klaseko mahai geinuetatik korrika ibiltzea erabaki genuen zigortuta geunden guztiok; hango tinteroak eta mahai gaineko gauza guztiak lurretik barrena utzi arte, tinta ere bai noski. Eta hola genbiltzela, han nondik agertzen den geure Alberto ospetsua. Orduan bai zirela kontuak eta marruak!

Lehenbizi, denok belauniko ezarri gintun. Gero, lasai lasai, sukaldara joan zen espartin baten bila. Igo zenean, han geunden zortzi edo hamar lagunei dozenaren bat ipurdiko eman zizkigun, ahal zuen bezain gogor eta ipurdiak gorritu han utzi gintun. Hortik aparte, hiru edo lau ikasgai kopiatzeko bidali zizkigun eta etxera. Hura zen pedagogia, hura! Oraindik oroitzen naiz, etxera joan eta ez nintzala ausartu ezer esaten, eta gelara joan eta begira egon nintzela ia nola neukan atzeko aldea.

Garai hartan Erreteriko praileen eskolan ibili ginenok ez dugu inongo akademira joan beharrik mitinetako jarrerak ikas ditzagun, hor aspaldi ikasi bait genituen. Esango dut. Astean arratsalde batez poesia bat ikasi behar izaten genuen eta gero, denon aurrean, errezitatu ere bai. Baina ez geldirik, bizik eta eskuak eta gorputza mugituz, alde batera eta bestera. Hura bai parregarria izaten zela!

Hauek dira, nolabait ere, gaur oraingok denbora asko ez dela desagertu den praileen ikastetxe zaharrak kontatuko lituzkeen gauzak, beste gauza pilo batzuen artean eta denboraren poderioan ahaztutuz joango direnak, OARSO aldizkaria bezalako batetan jasotzen ez badira behintzat, oraingokoan egin duenaren antzera.

*B. Bakaikoa Azurmendi*